



DANI BLANCO

Mikel Zurbano



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Irabazleak

BANKUAK eta hauen inguruko araugintza eta kontrol urria egungo krisiaren erantzule nagusiak dira. Europako zein Amerikako Estatu Batuen esperientziek argi erakusten dute bankuen erantzukizuna, herritarrek uste hori berretsi egiten dute. Espainiako Estatuan eta Hego Euskal Herrian banka sistemari egiten zaizkion kritikak Europako batez bestekoaren gainetik daude.

Nolanahi den ere, paradoxikoa da krisian zerikusi garrantzitsua izandako beste eragile batzuek –hala nola alderdi tradizionalak edota korporazio mediatikoak– narriadura izugarria pairatu dutenean banku handiek beren posizioa indartu egin izana. Esaterako, inkesta gehienetan errepikatzen da Espainiako Estatu bipartidismoak boto asmoaren arabera 25 puntu inguruko galera izan duela eta egunkari handiek beren irakurleen %40 galdu dituztela. Estatu banku nagusien merkatu kuota, aldiz, bere gailur historikoan dago: krisiaren aurretik banketxeek ez zuten jasotzen herritarren gordailuen %50 ere, kutxek hartzen baitzuten gehiengoa, baina gaur egun gordailuen %90 bankuen esku dago. Jakinaenez, kutxen desagertzeak sektoreko berregituraketa eragin du eta herritarren kutxetako gordailuen gehiengoa banketxeetara bideratu da.

nean kopuru hori are gehiago handituko dela ikusiko dugu. Horregatik guztiagatik, errentagarritasun mailarik gorena berreskuratu dute Espainiako Estatu finantza erakundeek. Alta, 2014 urtea aspaldiko onena izan da banketxeentzat –Espainiako Bankuko datuen arabera– mozkin garbiak %36 igo baitira aurreko urteko mozkinen aldean. 2015 urterako aurreikuspen batzuek mozkinen igoera handiagoa iragartzen dute. Europako Banku Zentralek irekitako aparteko finantzazio lerroak eta ogasunetik jasotako traeta onuragarriak zerikusi estua izan dute errentagarritasunaren hazkundearekin. Izan ere, emaitzen hobekuntza hau gertatu da bankaren negozio bolumena jaisten ari den unean, kreditu bolumenaren azkenaldiko jaitsiera da horren erakusle nagusia. Azkenik, banka negozioaren biziberritzearen arrazoi gehigarria sektorean egon den lanpostuen galera izugarria da –2008 urtean baino 60.000 lanpostu gutxiago dago orain eta bulego sarea ere %30 murriztu da–.

Alabaina, krisiaren aurreko errentagarritasun maila apaldu izana Estatu finantza boterearen kezka bihurtu da, batik bat interes tasek izan dituzten jaitsierek eraginda. Horren aurrean bankuen bategiteak eta irensteak bultzatu nahi dituzte, gehienbat Kutxabank bezalako tamaina txikia duten finantza erakundeen artean. Ohi legez, finantza eliteak botere oligopolikoaren egarri dira eta finantza eredu jendearen oinarritzko beharretatik areago urruntzeko arriskua bistakoa da.

Haatik, finantzetako bestelako eredu baterako lehen zantzuak agertzen ari dira han-hemenka, lankidetzeta eta elkartasun baloreak atxikita eraikitzen eta hedatzen ari diren Fiare, Coop57, Triodos... gisako finantza entitateen esperientzien eskutik. Erantzun politikoaren esku ez ezik finantza kontsumitzaileon esku ere badago irtenbideak bilatzea arlo garrantzitsu honetan ere. Etorkizuneko finantza eredu solidarioa eta konpromisodunaren haziak zabaltzeko erantzukizuna dugu, irabazleak guztiok izan gaitezten. ■

Estatuko banku nagusien merkatu kuota bere gailur historikoan dago: krisiaren aurretik banketxeek ez zuten jasotzen herritarren gordailuen %50 ere, kutxek hartzen baitzuten gehiengoa, baina gaur egun gordailuen %90 bankuen esku dago

Bestalde, Estatu banketxeek hamar-kadaren hasieran izandako galeren gehiengoa Europako Batzordeak estimatutako 90.000 milioi euroko laguntza publikoa jasota kitatua izan da. Gobernuak horren herena baino gehiago galdutzat eman du dagoeneko, baina etorkizun-